

# NAFARROAKO HIRI- ERABILERA KO URAREN ZIKLO INTEGRALAREN PLAN ZUZENTZAILEA 2019-2030

## BEHIN-BETIKO DOKUMENTUA

### LABURPENA

2019ko martxoa



HIRI ERABILERAREN URAREN ZIKLO OSOA  
CICLO INTEGRAL DEL AGUA DE USO URBANO



Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra



## AURKIBIDEA

<b>1 Sarrera, aurrekariak eta printzipioak</b>	<b>1</b>
<b>2 Jarduera-eremua</b>	<b>3</b>
<b>3 Diagnostikoa</b>	<b>4</b>
3.1 Horniduraren diagnostikoa _____	4
3.2 Saneamenduaren eta arazketaren diagnostikoa _____	7
<b>4 Planaren helburuak</b>	<b>10</b>
<b>5 Jarduketa-plana</b>	<b>12</b>
5.1 Ziklo integrala indartzea – 1. ekintza-lerroa _____	13
5.2 Gobernantza – 2. ekintza-lerroa _____	14
5.3 Hornidurako ekintza orokorrak – 3. ekintza-lerroa _____	15
5.4 Altako horniduraren hobekuntza – 4. ekintza-lerroa _____	15
5.5 Bajako horniduraren hobekuntza – 5. ekintza-lerroa _____	18
5.6 Saneamenduko ekintza orokorrak – 6. ekintza-lerroa _____	18
5.7 Altako horniduraren hobekuntza – 7. ekintza-lerroa _____	18
5.8 Bajako horniduraren hobekuntza – 8. ekintza-lerroa _____	19
5.9 Kostuak eta tarifa-sistema – 9. ekintza-lerroa _____	20
5.10 Ezagutza, sentsibilizazioa eta dibulgazioa – 10. ekintza-lerroa _____	20
5.11 Jarduketa-planen aurrekontuaren laburpena _____	21
<b>6 Jarraipena eta kontrola</b>	<b>23</b>
<b>7 Jendaurreko eta kontsultapeko prozesua</b>	<b>27</b>
7.1 Aurrekariak, parte-hartzea _____	27
7.2 Hasierako bertsioaren kontsulta-prozesua _____	27
7.3 Hasierako bertsioaren jendaurreko prozesua _____	28

## Elementuen aurkibidea

IRUDIA 1. 1988KO HORNIDURAKO PLAN ZUZENTZAILEKO ZONAK _____	4
IRUDIA 2. NAFARROAKO ALTAKO HORNIDURA-AZPIEGITURA NAGUSIAK _____	5
IRUDIA 3. NAFARROAKO ALTAKO HONDAKIN-URAK ARAZTEKO AZPIEGITURA NAGUSIAK 2016AN. DATU-ITURRIA: NAFARROAKO SANEAMENDU-PLANA. LANKETA PROPIOA. _____	8
IRUDIA 4. PLAN ZUZENTZAILEKO JARDUKETA-PLANEKO EKINTZA-LERROEN ESKEMA. _____	12
_____	14
IRUDIA 5. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOAREN ERREFORMAREN LEGEAREN ESKUALDEKO MAPA. _____	14
GRAFIKOA 1. NAFARROAKO KONTSUMOAK ZONA ETA TIPOLOGIEN ARABERA. DATUEN ITURRIA: TOKI-ERAKUNDEEI EGINDAKO INKESTAK ETA ZENBATESPENA. LANKETA PROPIOA. _____	6
GRAFIKOA 2. NAFARROAKO EGUNGO BALIABIDEEN JATORRIA. _____	7
GRAFIKOA 3. NAFARROAKO ARAZTEGI BIOLOGIKOETAN 2011-2015 ALDIAN FAKTURATU ETA TRATATUTAKO KANTITATEAK (EZ DA SARTZEN LEHEN MAILAKO TRATAMENDUA). DATUAK M <sup>3</sup> -TAN. DATU-ITURRIA: SANEAMENDU- PLANA. LANKETA PROPIOA. _____	9

# 1 Sarrera, aurrekariak eta printzipioak

Nafarroako Gobernuak, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuaren bidez eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren laguntzarekin, Hiri Erabilerako Uraren Ziklo Integralaren Plan Zuzentzailea sustatu du, hau da, kontsumoko uraren hornidurarena eta hiriko ur-hondakinen saneamendua eta arazketarena.

Hornidura-arloko aurrekari nagusia 1988ko Hornidurako Plan Zuzentzailea da, formalki onartu ez zena. Plan Zuzentzailea eguneratzen joan zen azpiegitura-plangintzari dagokionez, baina ez formalki.

Urte horretan bertan onartu zen [Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko abenduaren 29ko 10/1988 Foru Legea](#), eta baita apirilaren 5eko 82/1990 Foru Dekretua ere. 1989an onartu zen Nafarroako Saneamenduko lehen Plan Zuzentzailea, eta 1991an, 1995ean, 2005ean eta 2015ean eguneratu ziren haren jarduketak. Araudi ugariaren artean 2000ko Uraren Esparru Zuzentaraua edo [UEZ](#), 2001eko [Uren Legea](#), [Ebroko eta Ekialdeko Kantauriko 2015-2021 seiurteko plan hidrologikoak](#), kontsumoko urei buruzko [140/2003 Errege Dekretua](#) eta [ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea](#) nabarmentzen dira. Plan Zuzentzaile hau arrazoi hauengatik izapidetuko da:

- Nafarroako hornidura eta saneamendua-arazketa zerbitzu bakar gisa antolatuko dituen dokumentu bakarra eskura izatea.
- Ekonomia zirkularraren eta klima-aldaketaren aurkako borrokaren printzipioak txertatzea.
- UEZren postulatuak, NBEren [Garapen Jasangarriaren 2030eko Helburuak](#) eta “uraren kultura berria” deiturikoaren printzipioak sartzea.
- Plan Zuzentzailea izatea Nafarroako Foru Erkidegoak demarkazioko plan hidrologikoetan finkatutako erronkei erantzuteko bitartekoa.
- Hori guztia gizarteko sektoreekin eztabaidatutako eta haiek parte hartutako plan baten bidez egitea.

Honako hauek dira Plan Zuzentzaile hau izapidetzearen mugarrak:

- Diagnostikoa. 2016ko urria eta 2017ko abuztua bitartean egindakoa.
- Erribera hornitzeko alternatibak. 2017ko lehen sei hilekoa, partaidetza-prozesuarekin.
- 2017ko abuztuan harri-galdeketak izan zituen zirriborroa ([ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen](#) arabera). Gero, ingurumen-azterketa estrategikoko irismeneko dokumentua egitea.
- Partaidetza publikoa. Fase honetako dokumentazioa jendearen eskura egon zen Gobernu Irekiaren atarian 2018ko urtariletik aurrera. 11 deliberazio-jardunaldi eta 8 itzulera-jardunaldi egin ziren, eta iradokizunak jaso ziren bai jardunaldietan eta bai ezarritako komunikazio-bideetan: Gobernu Irekiaren ataria bera eta posta elektronikoa. 2018ko maiatzean amaitu zen prozesua.
- Hasierako bertsioa. 21/2013 Legearen 21. eta 22. artikuluetan eta [Gardentasunari, Informazio Publikoa eskuratzeko bideari eta Gobernu Onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legean](#) ezarritakoarekin bat, jendaurreko prozesuan (2018-12-21etik) eta kontsultapean

(2018-12-24tik) jarri zen, 45 egun baliodunez. Dokumentazio guztia eskuragarri egon zen Gobernu Irekiko webgunean. Alegazio horietako batzuk ontzat eman, eta hainbat aldaketa dakartza behin betiko dokumentu honek hasierako bertsioarekin alderatuta; ez dira, dena den, funtsezko aldaketak.

Jendaurreko eta kontsultapeko prozesua amaituta, eta iradokizun eta alegazio guztiak jaso eta aztertu ondoren, behin betiko bertsioa idatzi zen; dokumentu hau haren laburpena da.

Honako hauek dira Hiri Erabilerako Uraren Ziklo Integralaren Plan Zuzentzailearen printzipioak:

- Hornidura- eta saneamendu-zerbitzu egoki bat eskura izatea oinarrizko eskubide unibertsala da, sistema publiko bidez gauzatuko dena.
- Zerbitzu hori modu profesional, eraginkor, arduratsu eta solidarioan eman behar da, eta gizarteko maila guztien lurralde-oreka, gardentasun, ekitate eta erantzunkidetasun printzipioei erreparatuz.
- Planaren garapenak klima-aldaketaren aurkako borroka eta ur-arloko ekonomia zirkularraren aldeko apustua sustatuko ditu.
- Uraren Esparru Zuzentarauan, NBEren 2030eko helburuetan eta “uraren kultura berria” deiturikoan jasotako ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-printzipio nagusiak aplikatuko dira.
- Uraren hiriko zikloak garapen ekonomikoa eta soziala bideratuko ditu, giza osasuna zainduko du eta ekosistemetan duen eragina gutxienera murriztuko du.
- Uraren hiri-zikloaren egitura administratiboa optimizatuko da Toki Administrazioaren erreforman ezarritakoarekin bat etorriz.
- Uraren hiri-zikloaren tarifa-sistemak eta zerga-sistemak haren kostuak oso-osorik berreskuratzea izango dute xede.

## 2 Jarduera-eremua

Jarduera-eremua Nafarroako Foru Komunitatea da. Komunitateak 10.391 km<sup>2</sup>-ko azalera du, Iberiar penintsularen iparraldean dago eta klima-, geomorfologia- eta ekologia-aldakortasun handiak ditu. Iparraldeko plubiositate handia (urtean ia 3.000 mm Artikutzan) eta hego-ekialdeko muturreko aridotasuna (urtean 300 mm) nabarmentzen dira.

Nafarroa bi demarkazio hidrografikotan banatuta dago. Ebroren demarkazio hidrografikoak Foru Komunitatearen azaleraren % 90 hartzen du eta Ekialdeko Kantaurikoak gainerako % 10a. Hauek dira Ebroko demarkazioko ibai-ardatz nagusiak: Ega, Aragoi, Arga eta Irati. Hauek dira Kantauri isurialdekoak: Bidasoa, Urumea eta Leizaran. Nafarroako ibaietan, batez beste, 9.900 hm<sup>3</sup> ur joaten dira urtean. Gutxi gorabehera erdiak, 4.900 hm<sup>3</sup>/urtean, Nafarroan sortzen dira eta gainerakoak inguruko autonomia-erkidegoetan. Ekarpen handienak iparraldeko ibaietan izaten dira, Kantauri-Mediterraneo isurialdeen banalerrotik hurbil eta Pirinioetan, prezipitazioak ugariak izaten diren tokietan. 1.500 hm<sup>3</sup>/urtean sortzen dira Kantauri isurialdean eta ia 8.400 hm<sup>3</sup>/urtean Ebro isurialdean (horietatik, 3.400 hm<sup>3</sup>/urtean Nafarroan).

Plan Hidrologikoetan maneiatzen diren klima-aldaketaren datuek adierazten digute Nafarroan ekarpenak % 15 murriztuko direla, batez beste, 2030erako. AEMET eta CEDEXen ereduaren arabera eta erabilitako serieen arabera, murrizketak % 12-13koak izan daitezke 2040 eta 2070 artean eta % 12-27koak 2070 eta 2100 artean.


Nafarroak 644.566 biztanle zituen 2015ean. 2002tik 2011ra % 12,5 handitu zen biztanle-kopurua eta hortik aurrera 640.000-645.000 biztanletan egonkortu da. % 55, gutxi gorabehera, Iruñeko metropoli-eremuan bizi da. Nafarroan 272 udal-mugarte daude guztira. Estatistikako Institutu Nazionalaren aurreikuspenen arabera, 2030ean, Nafarroako biztanle-kopurua % 0,1 murriztuko da.

*Per capita* BPG 29.100 €koa zen 2015ean, Europako batez bestekoa baino zertxobait handiagoa (28.900 €) eta Espainiako batez bestekoa baino askoz handiagoa (23.200 €). Zerbitzuen sektoreak hartzen du enpleguaren % 59 eta industriak, % 31,5. Nekazaritzako elikagaien industriak industria-jardueraren % 14,4 hartzen zuen 2015ean eta ekonomia-jarduera osoaren % 4,3.

## 3 Diagnostikoa

### 3.1 Horniduraren diagnostikoa


1998ko Hornidura Plan Zuzentzaileak 16 zonatan banatu zuen Nafarroa.



IRUDIA 1. 1998KO HORNIDURAKO PLAN ZUZENTZAILEKO ZONAK



Orain arte, indarreko Plan Zuzentzailean planifikatutako azpiegitura asko egin dira eta, edozein kasutan, Nafarroako udalerrri guztiek dute hornidura-sistema, zenbait lekutan oso egokiak ez badira ere. Azpiegitura nagusiak irudi erantsian daude modu grafikoan jasota:




**IRUDIA 2. NAFARROAKO ALTAKO HORNIDURA-AZPIEGITURA NAGUSIAK**

- Itoizko urtegia eta Nafarroako ubidea. Gaur egun, honako hauek hornitzen ditu: Iruñerria, Mairagako Mankomunitatea, Agoitz, Longidako Harana, Urraulgoiti eta Irunberri hornitzeko Borondatezko Elkarte, eta Izagako Mankomunitatea.
- Eugiko urtegia. Iruñerria hornitzen du.
- Artetako iturburua. Iruñerria hornitzen du.
- Urdalurko urtegia. Sakanako Mankomunitatea hornitzen du.
- Esako urtegia. Aragoi garaia eta beheara, Arguedas eta Valtierra hornitzen ditu.
- Olorizko urtegia. Mairaga iparreko hornidura nagusia.

- Itxakoko iturburua eta Antzin eta Mendazako putzuak. Jurramendiko iturri nagusia.
- Errezuko iturburua. Izarbeibar hornitzen du.
- Ebroko eta Lodosako ubideko harguneak. Erriberako zatirik handiena hornitzen du.
- Queilesen iturburua (Moncayo). Moncayoko Mankomunitatearen hornidura nagusia da.

2015ean, Nafarroan, 77 milioi metro kubiko ur kontsumitu ziren hornidura-sareetan,<sup>1</sup> Nafarroan sortzen diren ur-baliabideen % 1,6. Bilketa propioak dituzten industriek kontsumitutako beste 16 milioi metro kubiko gehitu behar zaizkie horiei. Bien artean, Nafarroan sortzen diren ur-baliabideen % 1,9 osatzen dute.

Biztanle eta industria gehien dituzten eremuek kontsumitzen dute gehien: Iruñerriak, Erriberak, Jurramendik, Mairaga-Erriberagoienak eta Sakanak hartzen dute biztanleen % 90 eta ur-kontsumoaren % 83. Tipologiei dagokienez, etxeko kontsumoa da handiena % 36rekin eta gero industrialak % 18rekin. Beste kontsumo batzuek % 12 hartzen dute, esaterako, parke eta lorategiak ureztatzeak, garbiketek, eraikin publikoek, igerilekuek, abeltzainek... Nabarmentzekoa da kontsumoaren % 34 erregistratu gabe egotea eta kontrolik gabeko kontsumoak, galerak, ihesak edo kontagailuen azpikontaketa izan daitezke horren arrazoiak.




GRAFIKOA 1. NAFARROAKO KONTSUMOAK ZONA ETA TIPOLOGIEN ARABERA. DATUEN ITURRIA: TOKI-ERAKUNDEEI EGINDAKO INKESTAK ETA ZENBATESPENA. LANKETA PROPIOA.

Erregistratu gabeko ur-portzentaje hori oso aldakorra da: zenbait eremutan % 20tik beherakoa (Iruñerria, Tuter-Fontellas) eta beste batzuetan % 60tik gorakoa. Nolanahi ere, erakunde asko ahalegin handiak ari dira egiten portzentaje horiek jaisteko.

Nafarroako hiri-hornidurarako baliabideen jatorria honako grafiko honetan kontsulta daiteke. Kalitate txikiagoko ur gordina ematen dutenak Ebro ibaia eta horren ubideak dira, eta baita alubioi-putzuak ere: bien artean kontsumitutako guztiaren % 18 osatzen dute. Oro har, kontsumo-urak indarreko araudia betetzen du, salbuespeneko kasuetan izan ezik. Aipagarria da uhertasun-arazoak dituzten eta behar adinako tratamendua beti ez duten iturburuen kopuru handia.

<sup>1</sup> 1 metro kubiko (m<sup>3</sup>) 1.000 litro dira. Milioi bat metro kubiko, hau da, hektometro kubiko bat (hm<sup>3</sup>), mila milioi litro dira. Nafarroan 92 milioi metro kubiko (92 hm<sup>3</sup>) erabiltzen dira urtean sareei konektatutako eta ez konektatutako hiri- eta industria-hornidurarako, hau da, laurogeita hamabi mila milioi litro: 92.000.000.000 l



GRAFIKOA 2. NAFARROAKO EGUNGO BALIABIDEEN JATORRIA.


Altako hornidura (bilketa-puntutik banaketa-deposituraino) 158 erakundetatik kudeatzen da. Udalaz gaindiko soluzioek Foru Komunitateko biztanleen % 90,5 artatzen dute eta azaleraren % 64 hartzen dute. Beste 84 udal eskudun eta 56 kontzeju ere badaude. Horiek artatzen dute biztanleen gainerako % 10 eta azaleraren % 36.

Bajako horniduraren (banaketa-depositutik erabilera-puntuko harguneraino) egoera gutxiago ezagutzen da, batez ere sareen inbentarioari, horien egoerari eta abarri dagokienez. 212 erakunde arduratzen dira bajako horniduraz. Horietatik 9 udalaz gaindikoak dira eta biztanleen % 82 eta azaleraren % 46 hartzen dute.

Altakoa eta bajakoa kontuan hartuta, 64 erakunderen hornidura-tarifa dago, 0,69 €/m<sup>3</sup> batez besteko prezioarekin. Ez da ezagutzen zerbitzuaren kostu erreala eta kostu erreal horren zer portzentaje estaltzen den tarifen sarrerekin, UEZk hori eskatzen duen arren. Erakunde gehienetan ez dira amortizatzen azpiegiturak, batez ere Nafarroako Gobernuak edo Europako funtsek finantzaturako zatia.


## 3.2 Saneamenduaren eta arazketaren diagnostikoa

1988ko Saneamendu Planak egikaritze-maila handia du azpiegiturei dagokienez. Une honetan biztanleen ia % 100 konektatuta dago, gutxienez, lehen mailako sistema batera (hobi septikoa edo antzekoa) eta biztanleen % 98 arazketa biologikoak artatzen du. Irudi erantsian kontsulta daitezke 2016an zeuden 151 araztegiak, bai energia elektrikoarekin funtzionatzen dutenak (93) nahiz argindarrak gabeko mikroestazioak (58). Aldi berean, kolektore orokorren 475 km eta 57 ponpatze-estazio daude.



IRUDIA 3. NAFARROAKO ALTAKO HONDAKIN-URAK ARAZTEKO AZPIEGITURA NAGUSIAK 2016AN. DATU-ITURRIA: NAFARROAKO SANEAMENDU-PLANA. LANKETA PROPIOA.

2011 eta 2015 artean, etxeko eta industriako hondakin-uren  $40 \text{ hm}^3$ /urtean fakturatu ziren, gutxi gorabehera. Baina araztegiatan ia bikoitza tratatzen da (batez ere urte euritsuetan, esaterako, 2013an). Alde hori lur azpiko infiltrazioek, euri-urek eta abarrek eragiten dute. Kontuan izan behar da euri-garaian gainezka egin eta araztegietatik igaro gabe zuzenean ibilguetara joaten den ur kantitate ezezagun bat ere izaten dela.



3. GRAFIKOA. NAFARROAKO ARAZTEGI BIOLOGIKOETAN 2011-2015 ALDIAN FAKTURATU ETA TRATATUTAKO KANTITATEAK (EZ DA SARTZEN LEHEN MAILAKO TRATAMENDUA). DATUAK M<sup>3</sup>-TAN. DATU-ITURRIA: SANEAMENDU-PLANA. LANKETA PROPIOA.

2015ean, Saneamendu Planeko instalazioek araztegiko 67.000 tona lohi baino gehiago kudeatu zituzten. Lohiak tratatu ondoren, % 100 balioztatu ziren nekazaritzarako. Azken 5 urte hauetan, % 24 murriztu da lohi kantitatea, batetik, industria-jarduerak behera egin duelako eta, bestetik, lohiak egonkortu eta deshidratatzeko sistemak hobetu direlako.

Altako saneamenduaren eta arazketaren gobernantza hornidurarena baino errazagoa da Legez antolatuta dagoelako. Nafarroako Gobernuaren mendeko NILSA enpresa publikoak saneamenduko Plan Zuzentzailea kudeatu eta egikaritzen du. Iruñerriko eta Jurramendiko Mankomunitateek zuzenean kudeatzen dute altako saneamendua eta gainerako erakundeek lankidetzaren erregimenak dituzte ezarrita Nafarroako Gobernuarekin. Nafarroako Gobernuak NILSaren esku uzten ditu azpiegitura guztien eraikuntza eta kudeaketa. Bajako saneamenduari dagokionez (euri-urak barne), 212 erakunde arduratzen dira zerbitzuaz.

Ur-hondakinen saneamendu- eta arazketa-kanona 10/1988 Legean sortutako zerga bat da. 2015eko tarifa 0,570 €/m<sup>3</sup> zen etxeko erabilerarako eta 0,71 €/m<sup>3</sup> etxetik kanpoko erabilerarako. Azken urteetan 26-28 milioi euro jaso dira urtean saneamendu-kanona dela eta.

## 4 Planaren helburuak

Ur-hornidurako eta hondakin-uren saneamendu eta arazketako zerbitzu egokia izatea Nafarroako herritar guztien **eskubide unibertsaltzat** jotzen da. Nahasitako erakunde publikoek zerbitzua modu **eraginkor** eta **solidaritate**-printzipioa aplikatuz ematen dela bermatuko dute. Ur-pobrezia saihesteko aukera ematen duten mekanismoak ezarriko dira, 60 l/bizt./eguneko gutxieneko zuzkidura bermatuz.

Plan Zuzentzailea da ur-arloko Nafarroako tresna nagusia **klima-aldaketaren** aurka borrokatzeko eta **ekonomia zirkularrean** aurrera egiteko.

Plan Zuzentzailearen erreferentzia nagusia UEZ Uraren Esparru Zuzentaraua da. Horretarako:

- Plana izango da tresna nagusia gainazaleko eta lur azpiko masen egoera ona lortzeko, plan hidrologikoetan xedatutakoarekin bat etorritz.
- Kontuan hartuko dira eremu babestuetako erregistroak, batez ere edateko ur-harguneeen isurialdeak babesteko.
- 2027rako, hiri-erabilerako uraren ziklo integralaren sistemak erabat berreskuratu beharko ditu kostuak, ingurumen arlokoak barne.

Sistema publikoa hautatu da uraren hiri-erabilerako ziklo integralaren zerbitzua emateko. Zerbitzu horrek kontsumoko uraren (baita sarera konektatutako industrialara ere) hornidura eta hondakin-uren (euri-urak barne) saneamendua-arazketa hartzen ditu, baina zerbitzu bakarra da, zati bakoitza entitate edo erakunde desberdinek kudeatzen dituztela kontuan izan gabe.

2030erako, biztanleen % 100 kalitate handiko ur gordina duten iturrietatik hornitzea eta kontsumo-uren inguruko araudia erabat betetzea da helburua. Hornidura-iturri nahiko sendoak etaaldi berean dibertsifikatuak bilatuz diseinatuko da sistema, hain garrantzitsuak ez diren erabileretarako kalitate txikiagoko urak erabiltzea sustatuz. Hiri-erabilerako harpenetara ura isurtzen duten eremuak babestea lehenetsiko da.

Etorkizuneko eskaerak eraginkortasun-irizpidearekin eta kontsumo arduratsuen irizpidearekin gauzatzea proposatzen da.

- 2024rako, esparru guztietako etxeko zuzkidurak 120 litrotik beherakoak izango dira biztanle eta eguneko.
- Sareek efizientzia hauek izango dituzte,<sup>2</sup> gutxienez:
  - Oro har, bajako sareek (banaketa-depositutik) % 60ko gutxieneko efizientzia izango dute 2024an eta % 70ekoa 2030an.
  - Gainerako nukleoetarako, bajako sareek % 60ko gutxieneko efizientzia izango dute 2024an eta % 70ekoa 2030ean.
  - Gaur egun errendimendu hobeak dituzten sistemetarako, gutxienez errendimendu horiei eustea planteatzen da helburutzat.

---

<sup>2</sup> Efizientzia: erregistratzen den ur-portzentajea sarean zerbitzatzen denarekiko. Salbuespenak onartu ahalko dira bigarren etxebizitzako parkea edo behar bezala justifikatutako beste batzuk direla eta.

- Plan Zuzentzailea aplikatzeko lehen hiruhilekoan adierazle egokiagoak zehaztuko dira.

Saneamendurako helburua da, 2024an, 100 biztanletik gorako nukleo guztiek arazketa biologikoko sistema bat izatea. Nukleo txikiagoak lehen mailako tratamendu bidez artatuko dira, baldin eta sortutako eraginaren arabera beharrezkotzat jotzen ez bada. Mantenugaiak edo mikrokutsatzaileak ezabatzeko tratamendu aurreratua ezartzea aztertuko da.

Helburutzat planteatzen da uraren hiriko ziklo integralak ahalik eta inpaktu txikiena eragitea: ahalik eta baliabide gutxien hartzea, emari ekologikoak errespetatzea, babestutako espazio naturaletako ur-baliabideak babesteko arreta berezia, Natura 2000 Sarea barne hartuta, ahalik eta eragin txikiena obretan, isurien ahalik eta eragin txikiena, ahalik eta energia-efizientzia handiena eta ahalik eta eragozpen txikiak (usainak...). Helburu zehatz gisa proposatzen da sarera konektatutako ur-kontsumoak Foru Komunitatean sortutako ur-baliabideen % 2 ez gainditzea eta lohien % 100 nekazaritzan aplikatzea, aplikatu beharreko araudia betez.

Hiri-erabilerako uraren ziklo integralaren zerbitzuak gardentasun gorena izango du eta modu eraginkor eta profesionalenean emango da. Horretarako, eskualdeen esku geratzea proposatzen da (udalaz gaindiko erakundeak, toki-administrazioaren erreforman proposatutakoak). Tarifa-sistema solidarioa eta homogeneoa izango da (ez du esan nahi pertsona guztiek berdin ordainduko dutela, gehiegizko kontsumoak zigortu daitezkeelako, pertsona dagoen zonan dagoela berdin kalkulatu dela baizik) eta kostu guztiak hartuko ditu, ingurumenekoak barne.

Helburutzat jo da gizarte osoaren erantzunkidetasuna Plan Zuzentzailearen ezarpenen: erakunde publikoak, enpresak, kolektiboak, herritarrak... Plana genero-berdintasunaren alde borrokatuko da bere jardueraren eremuan.

Aurrerapausoak egingo dira prestakuntzan, hezkuntzan eta sentsibilizazioan, helburuak lortzeko tresna nagusi gisa. I+G+Bko inbertsioa sustatuko da zerbitzua hobetzeko printzipio gisa. 2030ean uraren hiri-zikloaren zerbitzuaren aurrekontuaren % 1 garapenerako lankidetzara bideratuko dela ere planteatu da.

## 5 Jarduketa-plana

Jarduketa Plana 10 ekintza-lerroren inguruan dago egituratuta:

- **1. ekintza-lerroa**, uraren hiri-zikloa benetako ziklo integral bihurtzea.
- **2. ekintza-lerroa**, gobernantza.
- Horniduraren hobekuntza, ekintza-lerro hauek banatuz:
  - **3. ekintza-lerroa**, hornidurako ekintza orokorrak.
  - **4. ekintza-lerroa**, altako hornidura-azpiegituren hobekuntza.
  - **5. ekintza-lerroa**, bajako hornidura-azpiegituren hobekuntza.
- Saneamenduaren hobekuntza, ekintza-lerro hauek banatuz:
  - **6. ekintza-lerroa**, saneamenduko ekintza orokorrak.
  - **7. ekintza-lerroa**, altako saneamendu-azpiegituren hobekuntza.
  - **8. ekintza-lerroa**, bajako saneamendu-azpiegituren hobekuntza.
- **9. ekintza-lerroa**, uraren hiri-zikloaren kostuak eta tarifa-sistema.
- **10. ekintza-lerroa**, ezagutza, sentsibilizazioa eta dibulgazioa.

Ekintza-lerro horien egituraketa irudi erantsi honetan ikusten da:



IRUDIA 4. PLAN ZUZENTZAILEKO JARDUKETA-PLANEKO EKINTZA-LERROEN ESKEMA.

1. eta 2. lerroak aterki-motakoak dira, 9. eta 10. lerroak zeharkakoak eta bi talde azpiegiturretara bideratuak.



Ekintza-lerro horietako bakoitzak jakineko neurriak ditu, batzuk berariazko aurrekontuak esleituta dituztenak. Neurriei dagokienez, asko azpiegiturretako hobekuntzak dira, baina jarduketa-plan honetan kontrol-, kudeaketa- edo ezagutza-neurriei ematen zaie garrantzia.

## 5.1 Ziklo integrala indartzea – 1. ekintza-lerroa

Hornidura- eta saneamendu-zerbitzua hiri-erabilerako uraren benetako ziklo integral bihurtzea da helburua, horniduraren eta saneamenduaren arteko mugak eta altako eta bajako zerbitzuaren artekoak gaindituz. Honako hauek dira ikusitako gabeziak:

- Baterako ikuspegirik ez, hornidura eta saneamendu deskonektatuak eta gutxi koordinatuak.
- Altako eta bajako zerbitzuen segregazioa eta koordinazio txikia.
- Eskumen atomizatuegiak eta kontrolatzeko mekanismo gutxi.

Ondoren azalduko dira proposatutako neurri nagusiak:

- Nafarroako Gobernuaren kontrola zerbitzua ematen duten erakundeen gainean eta eskualde bati baino gehiagori zerbitzua ematen dioten sistemen gainean.
- Erakunde eskudunek azpiegiturak, hornidurarako kendutako bolumenak eta horien jomuga kontrolatuko dituzte fase guztietan, eta baita erabiltzaile guztiek kontagailua izateko eta horien irakurketa periodikoak egiteko betebeharra, sareen errendimendua, kontsumoko uraren kalitatea, isuritako uraren kalitatea eta ingurunean duen inpaktua, zerbitzuaren kostu errealak, tarifak eta jarraipen-adierazleak ere.
- Erakunde eskudunek ustiapeneko plan operatiboak izango dituzte.
- Eguneratuta izango dira isurketa-emakidak eta -baimenak.
- Eskualdeek eta beste erakunde eskudun batzuek Gobernua informatuko dute. Gobernuak, aldi berean, informazioa bilduko du eta urteko laburpen-memoria baten bidez emango du jakitera.
- Desbideratzeak ikusten direnean, hobekuntza-planak eta neurri osagarriak proposatuko dira.

## 5.2 Gobernantza – 2. ekintza-lerroa

Sistema oso asimetriko eta atomizatu batetik abiatzen da: 200 erakunde baino gehiagok ematen dute bajako hornidura eta saneamendua. Honako hauek dira erronka nagusiak: sistemaren gobernantza-bilbe konplexua sinplifikatzea eta ordenatzea, eta gardentasun-, profesionaltasun- eta efizientzia-estandar handiak lortzea lurraldearekiko eta gizartearekiko hurbiltasunarekin batera. Plan Zuzentzailea [Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformaren Legearen](#) mende geratu da. Legea 2019ko otsailaren 4an onetsi zen, hau da, Plan Zuzentzailearen hasierako bertsioa jendaurrean eta kontsultapean egon zen bitartean. Eskumenak mugatzea, tokiko instalazioaren antolakuntza eta egitura eta finantzaketa dira erreformaren ardatzak. Erreformak etorkizunean izango diren 12 eskualdeei esleituko die udalaz gaindiko soluzioen altako horniduraren kudeaketa, eta bide ematen du eskualde horiek udalei “bajako sarearen” kudeaketa eskaintzeko ere.



IRUDIA 5. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOAREN ERREFORMAREN LEGEAREN ESKUALDEKO MAPA.

Proposatu den neurri nagusia 2020 baino lehen Hiri Erabilerako Uraren Ziklo Integralaren Legea onartzea da.

Gobernantza-eredua Toki Administrazioaren Erreformaren Legean oinarrituko da:

- Eskualdeek altako eta bajako hornidura-eskumena izatea komeni da.
- Altako saneamenduan antzeko gobernantza izaten jarraitzea aukeratu da. Aldi berean, eskualdeak bajako saneamenduz arduratzea komeni da, euri-urak barne.
- Laguntza-erakunde bat sortzea proposatzen da uraren hiri-zikloari izaera integrala emateko.

Plan Zuzentzaileak ezarri ditu uraren hiri-zikloaren zerbitzua gardentasun- eta partaidetza-estandar egokiekin egiteko behar diren premisak. Halaber, genero-berdintasun eraginkor baterako jarraibideak ere ezarri ditu.

### 5.3 Hornidurako ekintza orokorrak – 3. ekintza-lerroa

Azpiegiturakoak ez diren azpiekintza hauek proposatzen dira, bakoitza bere neurriekin:

- Iturriak babestea eta neurri osagarriak.
- Kontsumo neurritsuak eta jasagarriak.
- Baliabide desberdinak erabilera desberdinetarako.
- Kutsatzaile gainerakorrak.
- Lehorte-plana.
- Espezie exotiko inbaditzaileak.

### 5.4 Altako horniduraren hobekuntza – 4. ekintza-lerroa

Altako hornidura hobetzearen helburu nagusia eskualde guztiak ur gordinez hornitzea da, gaur egun herritarren % 18 ez delako hornitzen kalitate handiko ura ematen duten iturrietatik. Halaber, azpiegitura ugari hobetu eta modernizatu behar dira eta hornidura-sistema sendoa, dibertsifikatua eta malgua ahalbidetu.

Atal hori egiteko, hainbat ziurgabetasun sortu dira, batez ere etorkizuneko kontsumoa aurreikusteko zailtasuna, egungo egoeraren ezagutzak kaskarra izaten jarraitzen baitu zenbait erakundetan. Hala eta guztiz ere, egungoa baino kontsumo pixka bat txikiagoa kalkulatu da etorkizunerako, gutxi gorabehera 75,6 hm<sup>3</sup>/urtean, eta biztanleriaren balizko gehikuntza, kontsumo industrialaren

hazkunde garrantzitsua eta beste kontsumo batzuen hazkundera kontuan hartuta. Hori guztia erregistratu gabeko uraren beherakada handiarekin konpentsatzen da.

Hartutako neurrien artean sartzen dira garraio-sistemen hobekuntza (hodiak eta eroanbideak), edateko uren araztegiak, etab. Neurriak ezarri dira eskualde guztietan, dagozkien aurrekontuekin. Baina ondoren azalduko diren horietako batzuetan, neurriek irismen handiagoa dute eta zehatzagoak dira. Aldi berean, Plan Zuzentzaileak sistema bakoitzerako hornidura-baliabideak esleitu ditu.

Plan Zuzentzaileak altako hornidura-sistema guztien eragiketa eta mantentze egoki baten premia ere jasotzen du.

## ZANGOZERRIA

Irunberri eta Kasedako eremuetan alternatibak aztertu dira.

Irunberrin, Plan Zuzentzaileak Itoitz-Nafarroako Ubidea soluzioa aukeratu du, “kanaleta” berme-sistema gisa mantenduz. Nolanahi ere, zorrotzago aztertuko da Plan Zuzentzailearen hurrengo berrikuspenerako.

Kasedari dagokionez, EUAren bizitza baliagarria amaitzen denean, xehetasun handiagoz aztertuko da udalerrri horri eman beharreko soluzioa.

## ESTELLERRIA

Hegoaldea kalitateko urez hornitzeko jarduketa handienak eskatzen dituen eskualdeetako bat da Estellerriko Erribera, gaur egun kalitate eskaseko putzuetatik hornitzen baita. Itxakotik egiten jarraituko da Lizarrako eta inguruetako ur-hornidura. Herri txikietako iturburuak mantendu egingo dira. Ega Garaia eta mendebaldeko Estellerriko Erribera Mendaza soluziotik hornituko dira (P2 putzua). Baliabide horretatik eskualdeko hegoalderaino ura helarazteko eroanbideak egin behar dira. Halaber, hegoaldeko iturburuak operatibo mantenduko dira hornidura-berme gisa eta erabilera apalagoetarako (industrialak, parkeak eta lorategiak ureztatzeko, bideak garbitzeko...); aurretiazko kalkulua 0,5 hm<sup>3</sup>/urtea da. Aurreratu egingo da San Adriánetik hurbileko herriek Itoitz-Nafarroako Ubidea sistemarekin bat egitea, Azagra barne sartuta (Erriberagoiengan dago). Eskualde horretarako 38 milioi euro inguruko inbertsioak planteatzen dira, Plan Zuzentzailean altako hornidurarako aurreikusitakoaren % 27.

## PIRINIOAK

Eskualde honetan, Garde herria Izaba-Erronkari sistema orokorrean txertatzea proposatzen da. Neurri hori bigarren seiurtekoan gauzatuko litzateke, azterketa xehatuagoa egin ondoren.

Arratoz sistema handitzea ere planteatzen da Gorza-Izize-Uskartze herrietara zabalduz, gaur egun kalitate onekoa ez den ura ematen duten iturburuak baitituzte.

Halaber, hobekuntzak planteatzen dira Aezkoako Iturrioz sisteman.

## ERRIBERA

Irismen handieneko neurriak planteatzen diren eskualdea da. Altako horniduran aurreikusitako inbertsioen herena osatzen dute. Esa-Ferial baliabidearekin jarraituko da Arguedaserako eta Valtierrarako. Ubide Inperialarekin ere jarraituko da erabilera industrialetarako eta industria jakin batzuen putzuetarako. Moncayo-Queiles baliabideak ere mantendu egingo dira baldintza jakin batzuekin. Baina eskualde horren etorkizuneko horniduraren oinarria Itoitz-Nafarroako Ubidea sistema izango da. Sistema horrek kalitateko urez hornituko ditu herri gehienak. Beste putzu batzuk eta Ebroko beste hargune batzuk berme-sistema gisa mantentzea planteatzen da.

## ERRIBERAGOIENA

Eskualde horretan ere aldaketa garrantzitsuak egongo dira hornidura-eskeman. Azagrak Itoizko baliabideak hartuko ditu, 2027. urtetik, Estellerritik. Lehen seiurtekorako aurreikusita dago gainerako herriak Itoitz-Nafarroako Ubidea soluziotik hornitzea, La Pedreratik. Egungo TIP 2017-2019k aurreikusita du jarduketean hasiera. Plan Zuzentzaile honek planifikatuta ditu Azkoienetik abiatuta gainerako udalerriei hornidura bermatuko dien hodiak, Cadreita barne. Gaur egun erabiltzen diren euri-uren putzuak berme-sistema bihurtuko dira eta erabilera apalagoak asetzeko erabiliko dira: erabilera industrialak, parkeak eta lorategiak ureztatzea, bideak garbitzea...

## SAKANA

Hornidurak, hein handi batean, Urdalurko urtegiaren baitan jarraitzea planteatzen da. Beste iturburu batzuk ere operatibo utziko dira, Iribaskoak osagarria eta bermerako izan beharko lukeen arren.

## ERDIALDEA

Honako hau izango da eskualde honetako horniduraren oinarria:

- Olorizko urtegia ipar zonarako, Tafallaraino.
- Itoitz-Nafarroako Ubidea Tafallatik hegoaldera dauden udalerrietarako, Aragoi ibaiaren ardatza barne. Sistema hori, aldi berean, Tafallaren eta ipar zonaren berme gisa erabiliko da Olorizko urtegiak nahikoa baliabide ez duenean.

Plan Zuzentzailean, beste jarduketa batzuen artean, Erriberagoiena ere hornituko duen La Pedrerako ur-araztegia handitzea planteatzen da, eta goiburuan depositu erregulatzaile garrantzitsu bat jartzea. Bigarren seiurtekoan Orbaibarko altako hornidura-azpiegiturak berritzea proposatzen da, zehatzagoak izan beharko duten arren.

## ITOIZKO ERRESERBAK

Plan Zuzentzaileak 32,4 hm<sup>3</sup>/urtean esleitu dizkie hainbat eskualderi 2030erako. 27,6 hm<sup>3</sup>/urtean geratzen dira erreserba gisa. Horiek bigarren seiurterako esleituko dira, eskualdeek alde aurretik

eskatu eta justifikatu ondoren. Erreserbak esleitu ondoren, eskualde bakoitzak dagokion tarifa ordainduko du.

## 5.5 Bajako horniduraren hobekuntza – 5. ekintza-lerroa

Ekintza-lerro horretan kontrola eta kudeaketa hobetzeko hainbat neurri proposatzen dira, ezarritako helburuen gaineratik dagoen eremuetan erregistratu gabeko ur-maila asko murrizteko helburuarekin.

Gainera, bajako hornidura-sareen hobekuntzarako zuzkidura ekonomiko handia planteatzen da. Horretarako, lehentasunezko udalerrak adierazi dira, hau da, erregistratu gabeko ur-maila altuena dutenak. Partida hori bajako saneamendu-sareen hobekuntzarekin batera egingo da, euri-urak ere barne direla.

Plan Zuzentzaileak bajako hornidura-sistema guztien eragiketa eta mantentze egoki baten premia ere jasotzen du.

## 5.6 Saneamenduko ekintza orokorrak – 6. ekintza-lerroa

Lerro horretan 5 azpiekintza sartu dira, oso garrantzitsuak direnak saneamendu-sistema hobetzeko (euri-urak barne hartzen ditu):

- Hiri-drainatze jasagarria.
- Industrialdeetako altako saneamendua.
- Uholde-arriskuen kudeaketa.
- Kutsatzaile gainerakorrak.
- Espezie exotiko inbaditzaileak.

## 5.7 Altako horniduraren hobekuntza – 7. ekintza-lerroa

7. ekintza-lerroak altako saneamendu-azpiegituren garapeneko edo hobekuntzako neurriak hartzen ditu. Kontuan izan behar da, gaur egun, Nafarroako altako saneamendu-sistema garatuta dagoela, herritarren % 98 inguru araztegi biologikoei konektatuta dagoelako.

Altako saneamenduak garapen-maila aurreratua du. Nafarroako biztanleen % 98, gaur egun, sistema biologikoekin konektatuta dago. Erronka garrantzitsuak daude: kima-aldaketa, legeria berria, kutsatzaile gainerakorrak, ur-gainezkatze eta -ateratzeen kudeaketa...

Jarduketa-azpillerro hauek proposatzen dira: uren tratamendua eta lohien tratamendua.

Uren tratamenduari dagokionez, uraren hiri-zikloaren alderdi honen kudeaketa banatuta dagoen hiru eremuetan planteatzen dira jarduketak: Iruñerria (gutxi gorabehera gaur egungo Iruñerriko Mankomunitatea), Estelleria (gutxi gorabehera egungo Jurramendiko Mankomunitatea) eta NILSA (gainerako herriak, Nafarroako Gobernuarekin lankidetzaren erregimena sinatuta dutenak). Jarduketak honen gisakoak dira:

- Azpiegitura berriak. Oro har, instalazio txikiak dira, denak 250 biztanle baino gutxiagokoak, handienak egikarituta baitaude. Guztira 43 araztegi biologiko berri dira.
- Lehendik dauden araztegien erreformak, hobekuntzak edo handitzeak. Teknologia-ikuspegitik zaharkituta dauden edo behar adinako edukierarik ez duten araztegien eguneratzeak izan daitezke. Lehentasuna emango zaie ibilgu sentikorrenetara urak isurtzen dituztenei (Arga, Zidakos, Arakil, Queiles eta Ebro).
- Hobekuntzak saneamendu-kolektoreetan. Oro har, ur garbiak ezabatzeko eta gainezkatzeak eta ateratzeak kudeatzeko.

Lohien tratamenduari dagokionez, honako hau planteatzen da:

- Gaur egun Arazuriko araztegian egiten den kudeaketarekin jarraitzea. Bestetik, 2019-2021 aldian azterlan bat egitea planteatzen da, hobetzeko aukerak aztertze aldera.
- Jurramendi eremurako konposta egiteko instalazio bat eraikitzea, seguruenik Carcarko hondakin-tratamendurako zentroan, baina kokapena behin betiko zehaztu gabe.
- Eguzki bidez lehortzeko instalazioa eraikitzea Tuteran gainerako eremuetako lohiek kudeatzeko, baina kokapena Plan honetan proposatu gabe.

Plan Zuzentzaileak altako saneamendu-sistema guztien eragiketa eta mantentze egoki baten premia ere jasotzen du.

## 5.8 Bajako horniduraren hobekuntza – 8. ekintza-lerroa

Lerro hau lotuta dago bajako hornidura hobetzeari buruzko 5. ekintza-lerroarekin (laburpen honetako 5.5 atala).

Hobekuntza- eta kontrol-neurriak hartzen ditu, hau da, egiturazkoak ez direnak, sareen efizientzia hobetzeko, saneamendu-sisteman “ur garbiak” murrizteko eta euri-uren sistemaren kontrol on bat izateko helburuarekin.

Aldi berean, 154 milioi euro inguruko partida planteatzen du bajako sareen hobekuntza orokorrerako, bai hornidurakoak eta bai saneamendukoak eta euri-urenak. Horretarako, “ur garbiak” sartzeko arazo handienak dituzten altako 24 arazketa-sistemak aipatzen dira, hain zuzen ere, lehentasunezko jarduera-eremuak direnak.

Plan Zuzentzaileak bajako saneamendu-sistema guztien eragiketa eta mantentze egoki baten premia ere jasotzen du.

## 5.9 Kostuak eta tarifa-sistema – 9. ekintza-lerroa

Lerro honek ez du azpiegitura-izaerarik baina funtsezkoa da kostuak berreskuratzeko printzipioa betetzen dela ziurtatzeko (UEZko 9. artikulua) eta uraren hiri-zikloaren zerbitzua emateko sistemaren finantza-jasangarritasuna bermatzeko. Hiru azpillerrotan banatzen da:

- Kostuen azterketa. 2020 amaitu baino lehen uraren ziklo integraleko zerbitzu desberdinen kostua aztertzea, alderdi guztiak barne hartuta (hornidura eta saneamendua, alta eta baja).
- 2021 baino lehen tarifa-sistema bat ezartzea. Sistema horrek solidarioa eta orekatua izan behar du eta aurrezpena eta efizientzia sustatu behar ditu baliabidearen erabileran eta kudeaketan. Tarifa bidez kostuak berreskuratzeko epeak:
  - 2022rako, 10.000 biztanle baino gehiagori zerbitzua ematen dieten sistema guztiak.
  - 2025erako, 1.000-10.000 biztanleri zerbitzua ematen dieten sistema guztiak.
  - 2027rako, 1.000 biztanle baino gutxiagori zerbitzua ematen dieten sistema guztiak.
- Ingurumenaren gaineko kanon bat ezartzea, etorkizuneko Uraren hiri-zikloari buruzko Legeak ezarritakoaren arabera. Lantaldearen ondorioak 2020 baino lehen.

## 5.10 Ezagutza, sentsibilizazioa eta dibulgazioa – 10. ekintza-lerroa

Azpiegitura-izaerarik gabeko beste lerro estrategiko bat da, baina Plan Zuzentzaile honetan ezarritako helburuak betetzeko funtsezko laguntza izango dena. Hiru ekintza-azpillerrotan banatzen da:

- Ikerketa eta garapena. Barne hartzen ditu I+G inbertsio-konpromisoak (aurrekontuaren % 2 2030ean) eta lehentasunezko 11 ikerketa-lerro ezarri ditu.



- Sentsibilizazioa eta dibulgazioa. Hezkuntza- eta laguntza-kanpainak, informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak eta jardunbide egokien gidak proposatzen ditu.
- Garapenerako lankidetzua. Uraren hiri-zikloaren zerbitzua 2030ean bere aurrekontuaren % 1eko ekarpenarekin egitea planteatzen da.

## 5.11 Jarduketa-planen aurrekontuaren laburpena

Taula erantsian kontsulta daitezke ekintza-lerro bakoitzari esleitutako aurrekontuak. Ikus daitekeen bezala, Plan Zuzentzaileak ia 464 milioi euroko aurrekontua planteatzen du bi seiurtekoetan. Urtean, batez beste, 37 milioi euro gastatzea planteatzen da. % 91 azpiegiturak hobetzeko inbertsioei dagokie, hain zuzen ere, 4., 5., 6. eta 8. ekintza-lerroei. Azpiegituren finantzaketa modu honetan aurreikusi da:

- Altako saneamendu-azpiegituretarako inbertsioak (6. lerroa) saneamendu-kanonak finantzatuko lituzke oso-osorik, interes orokorreko bi obra izan ezik (Estatuaren kargu izango dira).
- bajako hornidura- eta saneamendu-azpiegituretarako (euri-urak barne) inbertsioak Toki Ogasunen Funtsaren ekarpenarekin eta eskualdeen eta beste toki-entitate batzuen % 20ko ekarpenarekin finantzatuko lirarteke.
- Toki Ogasunen Funtsaren ekarpen horiek Plan Zuzentzailean ezarritako azpiegitura, kontsumo, efizientzia, zerbitzuaren koste, tarifa eta abarri buruzko informazioa bidaltzeari baldintzatuta egongo dira, garatzeko legeek ezarritakoarekin bat eta aurrekontu- baliabideen mende.
- Tarifek kostu guztiak amortizatu beharko dituzte, Toki Ogasunen Funtsak egindako ekarpena barne.

Estrategikoak eta esanguratsuak dira 1., 9. eta 10. lerroen aurrekontuak ere: 39 milioi euro inguru Plan Zuzentzaile honetako bi seiurtekoetan.

EKINTZA- LERROAREN ZENBAKIA	EKINTZA-LERROA	AURREKONTUA €-TAN	%
1	Hiri-erabilerako uraren ziklo integrala indartzea	7.750.000	1,7
2	Gobernantza	-	0,0
3	Hornidura-ekintza orokorrak	1.785.000	0,4
4	Altako hornidura-azpiegituren hobekuntza	142.233.284	30,6
5	Bajako hornidura-azpiegituren hobekuntza	154.000.000	33,2
8	Bajako saneamendu-azpiegituren hobekuntza		
6	Saneamendu-ekintza orokorrak	1.480.000	0,3
7	Altako saneamendu-azpiegituren hobekuntza	126.096.271	27,2
9	Uraren hiri-zikloaren kostuak eta tarifa-sistema	430.000	0,1
10	Ezagutza, sentsibilizazioa eta zabalkundea	30.425.000	6,6
	<b>Plan Zuzentzaileko 2 seiurteko guztira</b>	<b>464.199.555</b>	<b>100,0</b>

TAULA 1. PLAN ZUZENTZAILEAREN AURREKONTUAREN LABURPENA

## 6 Jarraipena eta kontrola

Plan Zuzentzaileak sei urteko indarraldia du. Plan Zuzentzaile bakoitzak bi seiurtekoren plangintza hartuko du. Aurrenekoa zehatzagoa eta bigarrena gutxi gorabeherakoa eta hurrengo plangintza-zikloan berrikusiko dena. Seiurteko berrikuspenak edozein planen prozedura estandarren arabera izapidetuko dira, ingurumen-ebaluazio estrategikoa barne hartuta.

Plan Zuzentzaileak ezartzen du, funtsezko aldaketak medio, zer baldintzatan aldatu edo berrikusi behar den plana.

Jarraipena eta kontrola Nafarroako Gobernuak egingo ditu. Jarraipen eta kontrol hori egokiak izan daitezzen, Jarraipen Batzorde bat sortuko da kide hauekin:

- Nafarroako Gobernua eta bere sozietate publikoak.
- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa.
- Eskualdeak.
- Erakunde ekonomiko eta profesionalak, bereziki enpresa- edo industria-elkarteak.
- Gizarte-erakundeak.

Jarraipen Batzorde horrek funtzionamendu- eta osaera-erregelamendua, Koordinazio Batzordea eta hainbat Lantalde izango ditu.

Jendearen eskura jarriko dira urteko memoria eta sortzen diren txosten eta estatistikak. Horretarako, webgune espezifiko bat gaituko da. Honako hauek hartuko ditu urteko memoriak:

- Estatistika nagusiak eta jarraipen-adierazleak.
- Gauzatutako ekintzak.
- Planaren egikaritze-maila.
- Plan Zuzentzailearen zatiren bat praktikan jartzeko arazoak.
- Jatorrizko jarduketa-planarekiko aldaketa edo egokitzapen teknikoak eta xehatu gabe lagatako alderdien zehaztapenak.

Plan Zuzentzaileak hainbat adierazle ezartzen ditu.

### 1. ADIERAZLEA. HORNIDURARAKO HARTUTAKO KANTITATEA

Nafarroan hornidurarako hartutako kantitate guztia neurtuko du adierazleak. m<sup>3</sup>/urteko edo hm<sup>3</sup>/urteko neurtuko da. Bereizita egongo da Plan Zuzentzaileak adierazitakoaren arabera:

### 2. ADIERAZLEA. KONTSUMOAK TIPOLOGIEN ARABERA

Erakunde eskudunek tipologia hauen arabera neurtuko dituzte kontsumoak:

- Etxeko kontsumoa.
- Merkataritza- edo industria-kontsumoa edo asimilagarriena.
- Erakundeen kontsumoak.
- Abeltzaintzako kontsumoak.
- Altako galerak.
- Bajan erregistratu gabeko ura.

2020tik aurrera, balioak kontzeju, udalerrri eta eskualdeka bananduta azalduko dira.

### 3. ADIERAZLEA. ETXeko ZUZKIDURA BIZTANLE ETA EGUNeko

Honela kalkulatu da etxeko kontsumorako zuzkidura: l/bizt./eguneko. Balioa kontzeju, udalerrri eta eskualdeka bananduko da, eta globala Nafarroarako kalkulatu da.

Egungo balioa, 2015ekoa, 118 l/bizt./eguneko da, gutxi gorabehera. Helburua: 120 l/bizt./eguneko ez gainditzea.

### 4. ADIERAZLEA. SISTEMAREN ENERGIA-KONTSUMOAK ETA NEG ISURIAK

Hiri-erabilerako uraren ziklo integralaren sistemaren energia-kontsumoa eta NEG isuriak kalkulatu dira, modu honetan bananduz:

- Altako horniduraren energia-kontsumoa eta NEG isuriak.
- Bajako horniduraren energia-kontsumoa eta NEG isuriak.
- Altako saneamendu-arazketaren energia-kontsumoa eta NEG isuriak.
- Bajako saneamenduaren energia-kontsumoa eta NEG isuriak.

### 5. ADIERAZLEA. KONTSUMOKO URAREN ARAUDIAREN EZ-BETETZEAK

Urtero kalkulatu da kontsumoko uren edangarritasun-araudia betetzen ez duten laginen ehuneko. Betetze-maila % 100era hurbiltzea da helburua. Gaur egun % 96,3koa da.

### 6. ADIERAZLEA. ARAZTUTAKO KANTITATEAK

Urtero kalkulatu da araztegi bakoitzean araztutako ur-kantitatea eta, horrela, Nafarroarako kantitate osoa kalkulatu da.

### 7. ADIERAZLEA. SANEAMENDU-SISTEMAREN HUSTEAK ETA GAINEZKATZEAK

1290/2012 EDn adierazitakoaren arabera.

## 8. ADIERAZLEA. ISURKETA-BAIMENAK BETETZEA

2018tik aurrera, ustiatzen ari diren araztegien isurketa-baimenen betetze-maila kalkulatzeko jarraituko da.

2015eko datuen arabera, betetze-maila % 98,3koa da. Betetze-maila % 100ekoa izatea da helburua.

## 9. ADIERAZLEA. ZERBITZUAREN KOSTUA

Adierazleak barne hartuko du zerbitzuaren kostua, globalean nahiz €/m<sup>3tan</sup>. Kontzeju, udalerrri eta eskualdeka bananduta kalkulatu da. Halaber, kostuak bananduta jasoko ditu:

- Eragiketa- eta mantentze-gastuak
- Azpiegituren amortizazio-gastuak, berrituko direla bermatzeko.
- Zerbitzuari aurre egiteko behar diren eragiketa-egituren kostua.
- Finantzaketa-kostuak.
- Ingurumen-kostuak.
- Garrantzitsuak izan litezkeen beste kostu batzuk.

Egungo kostua ez da ondo ezagutzen bajako horniduraren eta saneamenduaren kasuan. Altako saneamenduan ezaguna da.

## 10. ADIERAZLEA. TARIFAK

Urtero lortuko dira batez besteko tarifak kontzeju, udal eta eskualdeka bananduta eta etxeke erabilerarako eta beste erabilera-mota batzuetarako bananduta. Datua €/m<sup>3tan</sup> emango da:

- Altako hornidura-zerbitzuaren batez besteko tarifa.
- Bajako hornidura-zerbitzuaren batez besteko tarifa.
- Altako saneamendu- eta arazketa-zerbitzuaren batez besteko tarifa.
- Bajako saneamendu-zerbitzuaren batez besteko tarifa.

Gaur egun, altako eta bajako horniduraren batez besteko tarifa 0,69 €/m<sup>3</sup> ingurukoa da. Altako saneamendu-kanona 0,59 €/m<sup>3</sup> da etxeke erabiltzaileentzat.

## 11. ADIERAZLEA. KOSTUEN BERRESKURATZE-MAILA

Zerbitzuaren kostua eta tarifa bidez bildutakoa kontuan hartuta, kostuen berreskuratze-maila kalkulatu da kontzejuko, udalerriko eta eskualdeko. 2024rako helburutzat ezarri da tarifa-sistemak kostuen % 100 berreskuratzeko aukera ematea, ingurumen-kostuak barne hartuta.

## 12. ADIERAZLEA. I+G+B GASTUA

2019tik aurrera, urtero kalkulatu da I+G+B gastua, eskualde bakoitzerako hornidura eta saneamenduaren arabera eta Nafarroako Gobernuak berak, bere sozietate publikoek, unibertsitateek eta zentro teknologikoek sortzen dituzten gastuen arabera bananduta. Horrela, Nafarroako gastu osoa kalkulatu da.

Helburua: I+G+B inbertsioa, 2024an, zerbitzuaren aurrekontu osoaren % 1,5era iristea da, eta 2030ean zerbitzuaren % 2,0ra.

## 13. ADIERAZLEA. HEZKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIOKO GASTUA

2019tik aurrera, urtero kalkulatu da hezkuntza, prestakuntza, informazio eta sentsibilizazioko gastua, eskualde bakoitzerako hornidura eta saneamenduaren arabera eta Nafarroako Gobernuak berak, bere sozietate publikoek eta beste erakunde batzuek sortzen dituzten gastuen arabera bananduta. Horrela, Nafarroako gastu osoa kalkulatu da.

Egungo hasierako datua ezezaguna da.

Arlo horretako inbertsioa, 2024an, zerbitzuaren aurrekontu osoaren % 1,0ra iristea da eta 2030ean zerbitzuaren % 1,5era.

## 14. ADIERAZLEA. GARAPENERAKO LANKIDETZAKO GASTUA

2019tik aurrera, urtero kalkulatu da garapenerako lankidetzako gastua, eskualde bakoitzerako hornidura eta saneamenduaren arabera eta Nafarroako Gobernuak berak, bere sozietate publikoek eta beste erakunde batzuek sortzen dituzten gastuen arabera bananduta. Horrela, Nafarroako gastu osoa kalkulatu da.

Arlo horretako inbertsioa, 2030ean, zerbitzuaren aurrekontu osoaren % 1,0era iristea da.

## 15. ADIERAZLEA. GARDENTASUNA

Gardentasunaren adierazlea urtean behin kalkulatu da, eta hauxe neurtuko du: informazio eskuragarria duten entitateen kopurua eta ehunekoa, arreta, iradokizun edo kexetarako mekanismo argia duten entitateak, eta genero-berdintasuna bultzatzen duten ekimenak. Proposatzen da, 2024rako, entitate eskudunen %100ak informazio eskuragarria eta arreta-mekanismoak izatea.

## 16. ADIERAZLEA. PARTAIDETZA

Antolatutako prozesuen kopurua, jasotako ekarpenak, kontuan jasotako ekarpenen kopurua eta prozesu bakoitzeko gizon eta emakumeen ehunekoa kalkulatu dira urtean behin.

## 7 Jendaurreko eta kontsultapeko prozesua

### 7.1 Aurrekariak, parte-hartzea

2017ko lehen seihilekoan, [Erriberako hiri- eta industria-hornidurari buruzko kontraste- eta partaidetza-prozesua](#) egin zen. [Prozesu](#) horretan, 11 bilera egin eta hainbat ekarpen jaso ziren, esteka honetan kontsulta daitezkeenak.

2017ko urtarrilaren eta maiatzaren artean partaidetza-prozesu goiztiarra egin zen. Horretarako, alternatiba jakin batzuk jasotzen zituen dokumentu espezifikoa idatzi zen. Dokumentazioa webgunean jarri zen: <https://gobiernoabierto.navarra.es/es/participacion/procesos/plan-director-del-ciclo-integral-del-agua-uso-urbano>. Kanal horretan eta posta elektronikoaren bitartez iradokizunak bidal daitezke.

2018ko lehen seihilekoan egindako partaidetza-prozesuan 19 jardunaldi egin dira:

- Irekiera-jardunaldia.
- Gaikako deliberazio-jardunaldiak (3).
- Zonakako deliberazio-jardunaldiak (7).
- Zonakako itzulera-jardunaldiak (7).
- Amaierako jardunaldia.

Partaidetza-prozesuan 741 ekarpen jaso ziren: 556 bileretan, eskua jasota eta lan-taldeetan egindako proposamenen bidez, eta beste 185 Internet bidez. Horietatik 140 Gobernu Irekiaren web-orriaren bidez iritsi ziren (25 erakunde edo norbanakorenak, erakunde edo norbanako bakoitzak hainbat ekarpen egin zitzaizkien) eta beste 45 posta elektronikoz (7 erakunderenak).

Xehetasun gehiagotarako, kontsultatu IV. eranskina. Ekarpenean eta eztabaida garrantzitsuenak honako hauei buruzkoak izan ziren:

- Erregistratu gabeko uraren helburuak.
- Hornidura-eskemak Sakanan, Arratozen, Izaba-Erronkari-Garden, Irunberrin, Zangozan, Erdialdean, Erriberagoienan, Eriberan eta Egan.
- Gobernantza.
- Zerbitzuaren kostua eta tarifak.

Balorazio orokorra da bertaratutakoak pozik geratu direla.

### 7.2 Hasierako bertsioaren kontsulta-prozesua

Informazioa behin betiko dokumentu honen V. eranskinean dago ikusgai.

Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiak Plan Zuzentzailearen hasierako bertsioaren dokumentua bidali zien entitate, erakunde eta interesatutako pertsoneri, kontsultak egin zituzten. 600 entitate eta interesatutako pertsona baino gehiagori bidali zituzten, eta soilik Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Lurralde Antolamenduko Departamentuko Lurralde eta Paisaia Zerbitzuaren erantzuna jaso zen.

Idazkiak 14 alderdi jasotzen zituen, hala Plan Zuzentzailearen memoriari nola haren ingurumen-ebaluazio estrategikoaren azterlanari buruzkoak.

Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiak Lurralde eta Paisaia Zerbitzuaren txostenean bildutako alderdiak aintzat hartuko dituela jaso zuen txosten batean.

Labur esanda:

- 14 alderdietatik 11 ontzat eman ziren.
- 14 alderdietatik 1 partzialki ontzat eman zen.
- 14 alderdietatik 2 jendaurrean jarritako dokumentuan zeuden dagoeneko.

### 7.3 Hasierako bertsioaren jendaurreko prozesua

Toki Administrazioako zuzendari nagusiak emandako abenduaren 5eko 1000/2018 Ebazpenaren bidez, jendaurrean jartzen da Nafarroako Hiri Erabilerarako Uraren Ziklo Osoaren 2019-2030 Plan Zuzentzailearen hasierako bertsioa, haren ingurumen-azterlan estrategikoarekin batera, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikulua ezarritakoarekin bat. Prozesua 2018ko abenduaren 21ean hasi zen, eta dokumentazioa Nafarroako Gobernu Irekiaren webgunean (<https://gobiernoabierto.navarra.es/participacion/procesos/plan-director-del-ciclo-integral-del-agua-uso-urbano>) jarri zen jendaurrean, baita Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Lurralde Antolamenduko Departamentuaren egoitzan ere, 45 egun balioduneko aldi alegazioak aurkeztu zituzten.

35 idazki desberdin jaso ziren. Multzo hauetan sailkatu ziren, antzekoak baitziren batzuk: 12 idazki Egari buruzkoak ziren; 6, Queilesi buruzkoak; eta 17, beste gai batzuei buruzkoak.

6 idazki pertsona edo entitate batek baino gehiagok aurkeztu zituzten. 29 idazki pertsona edo entitate bakar batek idatzi zituen. 595 idazki jaso ziren guztira. Horietako batek (02A) 512 atxikimendu jaso zituen.

Idazki bakoitzean, alegazio bat edo gehiago aurkeztu ziren (150 alegazio guztira): 9 idazkik alegazio bakarra zuten, eta 26k, alegazio bat baino gehiago.

Alegazioak aztertu ondoren, hauxe erabaki zen:

- 23 alegazio ontzat eman ziren, hau da, % 15.
- 40 alegazio partzialki ontzat eman ziren, hau da, % 27.
- 43 alegazio atzera bota ziren, hau da, % 29.
- 44 alegazio, hau da, % 29 hasierako bertsioaren dokumentuan dagoeneko zeudela jo zen.